


Aurrera doaz Irungo ordainlekuaren parean Bilborako noranzkoan 300 metroko hirugarren errei bat egiteko lanak

Aurrekontua 432.400+BEZ da, eta 15 asteko exekuzio-epea du.




Irungo ordainlekuaren parean, Bilborako noranzkoan, 300 metroko hirugarren errei bat egiteko lanak aurrera doaz. Obrak joan zen otsailaren 12an hasi ziren. Hori dela eta, Irun M/O-ko ordainlekutik AP-8ra Bilborako noranzkoan sartzeko adarra errei batekoa izango da.

Proiektuaren helburua errei berri bat prestatzea da Bilborako noranzkoan egungo bi erreietatik hirutara handituz 300metro luzeran Irungo ordainleku nagusiko bideen zabalgunera heldu aurretik. Hirugarren erreia lortzeko, beharrezkoa izango da AP-8ko trafikoak eta Irun M/O lotuneko sarrera-adarretik autobidera sartzen direnak bereizten dituen hormigoizko hesia lekuz aldatzea. Metalezko hesiak ere desmuntatuko dira, eta euri-uren eta argiteriaren kutxetak eraitsiko dira, konfigurazio berrirako egokiak diren beste batzuekin ordeztuz.

Errei berri honi esker, gidariek mugikortasun eta ikusmen hobea izango dute, eta denbora gehiagoz jarri ahal izango dira, Bilborako noranzkoan trafikoei zerbitzua ematen dieten zazpi bide finko eta hiru itzulgarrietara modu homogeenagoan eta hobeto banatuta joateko. Gaur egun, erabiltzaileek ordainleku nagusiko erdiko bideak erabiltzen dituzte, eta eskuinaldean daudenak, berriz, gutxiagotan. Horren ondorioz, auto-ilarak areagotu egiten dira zirkulazio gehien dagoen egunetan. Aurrekontua 432.400 euro+BEZ da eta 15 asteko exekuzio-epea du.

Continúan las obras para habilitar un tercer carril de 300 metros a la altura del peaje de Irun en sentido Bilbao

El presupuesto es de 432.400+IVA con un plazo de ejecución de 15 semanas



Continúan las obras para habilitar un tercer carril de 300 metros a la altura del peaje troncal de Irun en sentido Bilbao que comenzaron el pasado 12 de febrero. Con tal motivo el ramal de enlace que va desde el peaje de Irun M/O hasta la incorporación a la AP-8 sentido Bilbao será de un carril.

El proyecto tiene como objetivo obtener un nuevo carril, ampliando de los dos actuales a tres, en el tramo previo al acceso a la playa de vías del peaje central de Irún en sentido Bilbao. Para ello será necesario desplazar la barrera de hormigón existente que separa los tráficos de la AP-8 de los que acceden a la autopista por el ramal de entrada del enlace Irun M/O. También se desmontarán las barreras metálicas y se demolerán las arquetas de pluviales y de alumbrado existentes sustituyéndolas por unas nuevas adecuadas a la nueva configuración.

La intervención permitirá una mejor movilidad y visibilidad para los conductores que podrán posicionarse con más antelación para dirigirse de modo más homogéneo y mejor repartido a cualquiera de las siete vías fijas y tres reversibles que dan servicio a los tráficos en sentido Bilbao. En la actualidad los usuarios tienden a utilizar las vías centrales del peaje troncal y las ubicadas más a la derecha son usadas con menor frecuencia lo que provoca un aumento de las retenciones durante las fechas de mayor afluencia de tráfico. El presupuesto es de 432.400 euros+IVA con un plazo de ejecución de 15 semanas.